

Gazteak eta Etxebizitza 2019

Gazteen egoera oinarri izanik, etxebizitza
eredu berriak aztertzen



Idazketa eta edizioa:  Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua
Consejo de
la Juventud
de Euskadi

Diseinua eta maketazioa: Garazi Conde Orube

Itzulpena: Artez Euskara zerbitzua Koop. E

Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Juventud y Deporte



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



2020ko otsaila

Aurkibidea

1. Sarrera	5
2. Abiapuntua: etxebizitzaren eta gazterian egoera ezagutzeko puntu batzuk	6
2.1 Euskal Autonomia Erkidegoko araudiari erreparatur	6
2.2 Gazteen egoera	8
2.3 Gazteek emantzipatzeko dituzten aukerak aztertzen	10
3. Eredu desberdinak ezagutzen	12
3.1 Belaunaldi arteko eredia	16
4. Metodologia	19
5. Hiruburuetako edukia	21
5.1 Gasteizko eta Donostiako Udalek emantzipatzeko dituzten aukerak aztertzen	21
5.2 Belaunaldi arteko etxebizitza eredia aztertzen	24
6. Ondorio batzuk: proposamenetatik eraikitzen	26
7. Itxiera	29
8. Aipamen Bibliografikoak	31

1. Sarrera

Gaur egungo Euskadiko gazteen arazo handienetako bat emantzipatzeko ezintasuna da. Lan-baldintza kaskarrek, diru sarrera finkorik ez izateak eta etxebizitzaren prezio altuek asko oztopatzen dute bizitza proiektu autonomo bat eraikitzen hastea. Egoera horren aurrean, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) nahia gazteen egoera eta beharrei moldatzen eta erantzuten dien etxebizitza eskuratzeko aukerak eta etxebizitza-ereduak aztertzea da.

Lan hau gazteek etxebizitza eskuratzeko aukera, elkarbizitzarako eredu desberdinak aztertzeke eta honen gaineko ekarpenak egiteko asmoarekin landu da. 2018an, **#EuroEmantzipatu** proiektuaren bitartez, European garatutako emantzipatzeko ereduak Jordi Bosch adituarekin aztertu eta landu ostean **#EuroEmantzipatu** ondorio-txostenean jaso ziren. Oraingoan, ibilbidea jorratzen jarraituz, Euskadin garatu eta garatzen ari diren aukeretan jarri da fokua.

Esku artean duzun txosten hau Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren, Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Donostiako Udalaren eta Gasteizko Udalaren arteko lankidetzaren emaitza da.

Dokumentuaren hasieran gazteen eta etxebizitzaren errealitatearen diagnostiko orokor bat dago, besteak beste, EGK-ko **Emantzipa...zer?** lantaldeak landutako datuekin eta egiaztatutako datu ofizialekin. Ondoren, etxebizitza eredu desberdinak ezagutzeko hauen bilketa laburra egin da eta, jarraian, belaunaldi arteko ereduak sakonduko da. Horretarako, EGK-k 2019an Gasteizen eta Donostian egin dituen Hiruburuen¹ edukia jasoko da. Amaitzeko, proiektuaren ondorioak daude.

¹ Gazteak, kargu politikoak eta teknikoak gai zehatz bat jorratzeko mahai baten inguruan elkartzen dituen eztabaida-dinamika.

2. Abiapuntua: etxebizitzaren eta gazterian egoera ezagutzeko puntu batzuk

Etxebizitza eskubidea oinarritzko eskubide gisa aitortua dago 1948ko Gizarte Zerbitzuen Nazioarteko Hitzarmenaren 25. artikuluan edota Eskubide Sozial, Ekonomiko eta Kulturaren Nazioarteko Ituneko 11. artikuluan. Hala ere, gaur egun etxebizitza eskuratzeko dauden zailtasunak oso larriak dira. Gainera, kolektibo batzuek dituzten zailtasunak nabariagoak dira. Horien artean EGK-k gazteen kolektiboaren egoeran jarri du fokua.

2.1 Euskal Autonomia Erkidegoko araudiari erreparatuz

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) araudiari erreparatuz, oinarritzko eskubidearen araudian urrats bat aurrera eman da. 2015ean etxebizitzaren arloan aitortza eta bide berriak zabalduko zituen [3/2015 Etxebizitza Legea](#) onartu zen. Bertan, **etxebizitzarako eskubidea subjektibo gisa** aitortzen da, hau da, EAEko legegileek herritarrei etxebizitza duin eta egokirako eskubidea aitortu diela eta hori exijitzeko zilegia izateko baldintzak ezarri dituela. Hori dela-eta, zehaztutako baldintzak betetzen dituzten herritarrek administrazioari eskubidea bermatzeko eskatu diezaioke eta, egin ezean, auzitegietara joateko aukera ere badute. Modu labur batean bada ere, legearen puntu garrantzitsu batzuk aztertzea komeni da:

Nortzuk izan daitezke eskubidearen titularrak?

Administrazioak zehaztutako baldintzak betetzen dituzten herritarrek dute eskubidea aitortuta. Honela jasotzen da Legean:

“Etxebizitzarik izan ez eta lortzeko beharrezko baliabiderik ere ez duten guztiei”

(3/2015 Etxebizitza Legearen III. zioen azalpena).



Nola egikaritu daiteke eskubidea?

3/2015 Legeak eskubidea egikaritzeko aukeren artean, bi bide zehazten ditu (9. artikuluan). Lehenengo, alokairuaren aukeragatik egiten du apustua, konponbide egoki eta justuena dela azalduz:

“Nahiz eta hura Administrazioaren eskura dauden legezko modu guztien bitartez berma daitekeen, lege-arau honek lehentasuna ematen dio alokatzeari, konponbiderik egokiena eta justuena delakoan”

(3/2015 Etxebizitza Legearen II. zioen azalpena).

Gainera, beste kolektibo batzuekin bat, gazteak etxebizitza bat legez okupatzeko zailtasunak dituen kolektibo gisa aitortzen du zuzkidura etxebizitzetaz mintzo den 23. artikulua. Etxebizitza² eskuratzeko zailtasuna duten kolektibo hauentzako, aldi baterako erantzun moduan, zuzkidura etxebizitzetan jartzen du fokua:

“Etxebizitza bat legez okupatzeko zailtasunak dauzkatenei aldi baterako bizitokia eskaintzeko erabiliko dira, hala nola gazteei, immigrantei, etxebizitza partekatua erabiltzeko eskubidea galdu uten bananduei edo dibortziatuei, hirigintzako eragiketarako direla-eta beste bizitoki baten zain

daudenei eta antzeko beste batzuei”
(3/2015 Etxebizitza Legearen 23.2 art).

Bestalde, eskubidea egikaritzeko bigarren modu gisa, izaera subsidiarioarekin, honela azaltzen du legeak:

“Etxebizitza edo bizitokirik ezean, eskubidea prestazio ekonomikoen sistema bat ezarrita bete ahal izango da”

(3/2015 Etxebizitza Legearen 9.2 art).

Hau da, alokairuzko etxebizitzarako aukerarik ez badago, eskubidearen titularrek laguntza ekonomikoaren aukera izango dute, merkatu pribatuan etxea bilatu ahal izateko.

Zer esan nahi du eskubidea erreklamatu daitekeela?

Zehaztutako baldintzak betetzen dituztenek administrazio publikoari eskubidea bermatzeko erreklamatu diezaioketela eta bete ezean, auzitegiara jotzeko aukera ere badagoela:

“Haren titularrei bide juridikzionalera jotzeko aukera ematen zaie eskubidea eraginkorra izan dadin”
(3/2015 Etxebizitza Legearen II. zioen azalpena).

Legean bertan garatuago azaltzen den moduan:

“Etxebizitza eta bizitoki babestu bat legez okupatzeko eskubidea duten pertsonak etxebizitza gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari erreklamatu ahal izango diote eskubide hori betetzea, eta administrazio horren ebazpenak administrazioarekiko auzien jurisdikzioan errekurritu ahal izango dira”

(3/2015 Etxebizitza Legearen 6. art).

Finean, 3/2015 Etxebizitza Legeak etxebizitza duinerako eskubidea subjektibo moduan aitortu eta galdagarria izateko baldintzak zehazten ditu. Halere, eskubidea egikaritzeko garatu beharreko xedapenak zein nolakoak diren eta praktikan zein nolako eragina duten aztertzea ezinbestekoa da. Horretarako, lehenengo eta behin, **gazteen egoerari erreparatu behar zaio**. Bide horretan, gazteek etxebizitza eskubidea gauzatzeko egoera zein den eta zein nolako aukerak dituzten aztertzeko hurbilpen bat egingo da.

² Errenta edo kanon baten truke pertsonen bizikidetzaren unitateen bizileku-premiak aldi baterako asetzeko bizitokia. Orokorrean titulartasun publikoa dute eta administrazioari lurzoruan, eraikinetan edo lokaletan kokatuta egon ohi da. Ez zaizkio hirigintza-arauditik datozen estandarrak eta legezko erreserbak aplikatzen.



2.2 Gazteen egoera

Bizitza-proiektu autonomoa egin ahal izatearen oinarrizko nahietako bat da emantzipazioa. Nahiz eta emantzipatzeko orduan faktore askok eragin zuzena duten, bi funtsezkoak dira: enplegua eta etxebizitza. Egoera horienganako hurbilpen bat egingo da hurrengo bi puntuetan:

Enplegu egoerarekin zuzenean lotuta

Gazteen enplegu egoerak modu zuzenean baldintzatzen eta eragiten duenez emantzipazio-prozesuan, ezinbesteko ikusten da honi arretaz erreparatzea.

Alde batetik, langabezia-tasa jaisten doan honetan sortzen diren enpleguetan jarri behar da fokua. Izan ere, enplegu hauen ezaugarriak erreparatuz, aldi baterako enpleguak edota lanaldi partzialak nagusitzen dira. Gazteek pairatzen dituzten baldintza hauen gain, soldata baxuetan jarri behar da fokua, prekaritate ekonomikoa sustatzen baitute.

Gazteen Euskal Behatokiak (2018) publikatutako [Gazteak eta enplegua Euskadin 2017](#) txostenaren marraztutako errealitateak emakumeen eta gizonen arteko soldata ezberdintasuna argi eta garbi islatzen du: emakumezkoek gizonetako baino

132€ gutxiago kobratzen dute hilean, eta, beraz, ia 2.000€ gutxiago urtean. Soldaten ezberdintasun honek genero bakoitzeko baliabide ekonomikoetan eragina duenez, hauen bizi baldintzetan eta bizitza-proiektuari dagokionean ezberdintasunak sortuko ditu, emakumeak zaurgarritasun egoera handiagoan utziz.

Soldata-desberdintasuna arrakala honen arrazoi garrantzitsu bat bada ere, ez da bakarra. Honen zergatiak askotarikoak eta konplexuak dira. Jarduera-sektoreak, lanbideak, lan-segregazioak edo kontratu motak soldata-arrakala horretan eragiten dute baita ere.

Izan ere, eta lan-segregazioarekin jarraiki, Emakundek (2018) ateratako [Soldata arrakala EAEn](#) txostenean adierazten duen bezala emakumeek egindako lanari balio sozial eta ekonomiko txikiagoa ematen zaio.

Gazteen enplegu egoerak modu zuzenean baldintzatzen eta eragiten duenez emantzipazio-prozesuan, ezinbesteko ikusten da honi arretaz erreparatzea

Gainera hauetariko gutxiago daude erantzukizun-postuetan, pairatzen duten kristalezko sabaia dela-eta.

Zuzeneko eta zeharkako diskriminazio honek emakume gazteen bizitza-proiektuari zuzen eragiten dio, finean, bizitza-proiektua modu autonomoan eta osotuan garatzeko baldintza okerragoak izanik.

Nahi eta ezin, baina nahi

[Gazteen emantzipazioa Euskadin 2017](#) txostenean azaltzen den moduan, EAEko emantzipazioaren batez besteko adina 29,6 urtekoa da. Halaber, gazteen iritziz, emantzipatzeko adin egokiena 23,7 urtekoa da, errealitatea baino 6 puntu gutxiago alegia. Gainera, EGK-k gazte adin-tartea 30 urterekin amaitzen dela ulertzen du, beraz, hori dela-eta gazteak teknikoki emantzipatzen ez direla azal daiteke.

Datu hauek are larriagoak dira Europako errealitatearekin alderatuz. Europar Batasuneko 28ko batez besteko emantzipazio tasari erreparatuz, gazteen %65,7a bizi da gurasoekin; Euskadiko ehunekoa aldiz, 7 puntu handiagoa da. Zipren, Hungarian, Belgikan eta Txekiar Errepublikan dutenaren antzekoa izanik.

Espainiar estatuaren datuari erreparatuz ere, emantzipazio-tasa txikienetarikoa duten estatuen artean aurkitzen da, gazteen % 80tik gora gurasoekin bizi baitira: Kroazia (%87,1), Eslovakia (%85,6), Malta (%85,1), Italia (%83,2), Grezia (%81,4) eta Espainia (%81,0). Beste aldean aldiz, emantzipazio-tasa altuagoekin, Europa iparraldeko herrialdeak aurki daitezke: Danimarkan 16-29 urteko gazteen %35,9a bizi da gurasoen etxean, horren ondoren ageri dira Finlandia eta Suedia, %50etik beherako ehunekoekin.

Hala ere, ez dira gazte gutxi emantzipazio proiektuari ekin nahi diotenak. Guztiz kontrakoa, [Gazteen Emantzipazioa Euskadin 2017](#) txostenean aipatzen den moduan emantzipatuta bizi nahi dutenen gazteen proportzioa %80tik gorakoa izan da beti. Beraz, berau egikaritzeko, garatzeko eta erantzun posibleak bilatzeko gazteek emantzipatzeko dituzten aukerak ezagutu behar dira lehenengo. Horixe izango da hurrengo atalean aurkituko duzuna.

2.3 Gazteek emantzipatzeko dituzten aukerak aztertzen

Atal honen xedea gazteen eta etxebizitzaren diagnostiko oso bat egitea baino, irudia osatzeko puntu batzuk lantzea da. Horretarako, gazteen eta etxebizitzaren gaineko egoeraren datu batzuk aztertuko dira. Iturri ofizialetan oinarrituz, EGK-ko **Emantzipa...zer?** lantaldean landutako datu batzuk mahai gaineratuko dira:

2.3.1 Alokatu edo erosi?

Gazteen Euskal Behatokiak argitaratutako [Gazteen emantzipazioa Euskadin 2017](#) txostenean azaltzen den moduan, EAEko gazteen %69,1a alokairuan bizi da. Beraz, emantzipatutako gazteen aukera nagusia, alokairua da momentu honetan. Baina zer dago alokatzearen arrazoiaren atzean?

“Alokairuan bizi diren hiru gazte emantzipatutik batek esaten duela alokairua behin-behineko irtenbidea dela etxebizitza bat erosteko egoera optimoan egon arte (hau da, diru-sarrera nahikoak eta egonkorak eduki eta hipoteka-mailegu bat eskatzeko moduan egon arte)”

(Euskadiko Gazteen egoeraren diagnostikoa 2019).

Finean, gazte gehienak alokairuan bizi dira, eta askok aldi baterako aukera gisa ulertzen dute. Egoera honetan aurkitzen diren gehiengoaren egoera zein nolakoa den jarraian aztertuko da.

Nolakoa da alokairuan dauden gazteen egoera?

[Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2018](#) txostenean azaltzen den moduan, alokairua bere gain hartzeko gazteek soldata garbiaren %30a bideratzea zorpetze onargarriaren gehieneko atalasea litzateke. Gazteen diru-sarreraren %40a bideratu beharra aldez,

gainesfortzu ekonomikoa litzateke. Halaber, **beste korrante batek, alokairu soziala oinarri izanda, bideratu beharrekoa %15era mugatzen du.**

Dena den, errealitatearen datuak oso urrun daude aipatutako ehuneko horietatik, izan ere, Euskadin etxebizitza libre baten alokairua bere gain hartzeko, 18-29 urte bitarteko gazteek soldata garbiaren %88,3a erabili behar dute (lurrealdekoa: Araban %73,9; Bizkaian %82,1 eta %106,9 Gipuzkoan). Ondorioz, gazteek emantzipazio proiektua zorpetze ekonomiko karga handiarekin gauzatzen dutela azaldu daiteke.

Jabetza eta alokairuaren arteko aukerak alderatzen badira, [Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2018](#) txostenean jasotzen den moduan, alokairuan daudenek gainesfortzu ekonomiko handiagoa egiten dute.

Ezinbestean kontuan hartu beharreko errealitatea da emakume gazteena, okerragoa baita. Izan ere, enpleguaren alorrean ere desberdintasuna sostengatu eta elikatzen duten oztopo asko daude, horietako asko estrukturalak. Aipatzekoa da emantzipazio egoerarekin zuzenean lotuta dagoen soldata-arrakala. Emakume gazteek hilean gizonek baino 132€ gutxiago kobratu zuten 2017 urtean, eta ondorioz, etxebizitzara bideratu beharreko kostua handiagoa da, alokairura adibidez, diru-iturrien %77,1 bideratu behar dute.



2.3.2 Alokairu prezioak etengabe gorantz

Azaldu bezala, gazteen gehiengoa alokairuan dago eta alokairu kosturako diru iturrien %69,3a bideratzen dute. Beraz, ezinbestean errealitate hau aztertu nahian alokairu merkatu egoerari erreparatu beharra dago.

2019an Etxebizitza Behatokiak publikatutako [Euskadiko turismo-erabilerako etxebizitzaren eta bizitegi-alokairuari buruzko azterketa konparatiboa](#) txostenean azaldu bezala, alokairu etxebizitzaren eskaintzaren datuen arabera, EAEko batez bestekoa 1051,3€koa da. Lurraldeka, Araba 904,8€, Bizkaia 1.012,3€, Gipuzkoa 1.197,3€ (hiriburuka, Donostia 1.305,2€, Bilbo 1.075,6€ eta Gasteiz 1.070,1€).

Alokairuen burbuila dagoela azaltzen dute zenbait adituk, eta datuek adierazi bezala, ondorioetako bat da alokairuko etxebizitzetan emantzipatzea garestiagoa dela etxebizitza bat erostea baino, batez ere, turismo handia erakartzen duten gunetan. Hala ere, azaldutako egoeraren ondorioz, alokairuaren aukera da gazte askorentzat aldi baterako soluzio modu bakarra.

2.3.3 Eredu desberdinen beharra

[Gazteen emantzipazioa Euskadin 2017](#) txostenean adierazten den moduan, badirudi bikotekidearekin batera emantzipatzea dela kultura-arau nagusia, izan ere, emantzipatuta dauden gazteen %58,7a bikotekidearekin bizi da.

EGK-k garrantzitsua dela uste du gazteek elkarbizitzarako eredu desberdinak izatea eta, bide honi jarraiki, aurreko urtean fokua Europan jarri zen. Aurtun norabide hau jarraituz, Europako eredu etako batzuk Euskadin zelan garatzen diren aztertzea izan da erronka.

Alde batetik, badaude inguruan bestelako apustua egiten ari diren kolektibo eta administrazioak, eta praktika hauei ikusgarritasuna ematea garrantzitsua da. Batzuk administrazioak sustatutakoak dira, horietako adibide berritzaileen artean daude etxebizitza komunitarioan oinarritzen den [Oreretako gazteentzako etxebizitza komunitarioaren proiektua](#), Usurbileko udaletxearen belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioan oinarritzen den [Txirikorda proiektua](#) edota UPV/EHU udaletxe desberdinekin duen belaunaldi arteko alojamendu programa. Beste batzuk aldiz, herritarren ekimenez sortutako zenbait kolektibo eta proiektu dira; hala nola, [Abaraska etxebizitza kooperatibo proiektua](#), [Ametsak Sortzen Cohousing Erkidegoa](#) etab.

Finean, eredu desberdinak mahai gainean jartzeko beharra nabaria da. Hauek aztertze bidea gazteen artean ezagutarazi eta gazteek hauekiko duten iritzi eta ekarpenak oinarri izanda administrazioari helaraztea litzateke. Hurrengo atalean xehetasun gehiagorekin sakonduko da gai hau.

3. Eredu desberdinak ezagutzen

EGK-k bai Emantzipa...zer? lantaldearen jardunaren bidez, eta baita jardunaldietan jasotako gazteen iritziaren bidez, bi behar antzeman ditu: alde batetik, etxebizitza eskuratzeko aukerak ez dira gazteen behar eta egoeretara moldatzen prezio altuegiek gazteen zorpetze ekonomikoa du ondorioztat; bestalde, etxebizitza eredu desberdinak aztertzeke beharra dago. Horregatik, bi behar hauei erantzuteke eta administrazioari proposamena luzatzeko asmoarekin eredu desberdinak lantzeko bidea hartu da.

Etxebizitza eskuratzeko zailtasunen aurrean

(diru sarrera finkorik ez, enplegu baldintza prekarioak, etxebizitza prezio altuak...) administrazio publikoak egoera honi erantzuteko baliabideak eskaintzea ezinbestekoa da. Zentzu honetan, gazteen emantzipazioa ahalbidetuko duten neurri eta programak sustatu behar dira. Besteak beste, alokairuaren prezioak mugatuz, alokairu sozialaren aldeko apustua ezinbestekoa da.

Bestalde, **etxebizitza ereduei dagokienean**, badago zer egin. EGK-k 2018an fokua Europan jarri zuen, eredu desberdinak aztertzeke asmoz. Bide horretan, 2019an inguruko proiektuetan jarri da fokua. Izan ere, anitz dira inguruan ere loratzen ari direnak.

Beraz, behar hauei erantzuten dieten ereduak aztertzea izan da EGKren 2019ko erronketako bat. Horretarako, abiapuntu gisa, hurbil dauden praktikak aztertzeke ekin zaio. Horien adibideak dira hurrengo hauek:



Etxebizitza kolaboratiboak edo cohousingak

Irati Mogollón eta Ana Fernándezek [Arquitecturas del cuidado](#) (2016) lanean azaltzen duten moduan, etxebizitza kolaboratiboak edota cohousing moduan ezagunak diren ereduak, elkarbizitzan oinarritutako bizimodu bat bultzatzeko sortu dira. Beharrianak erdigunean kokatuz eta komunitatea eraikiz oinarritzen direnak.

Abaraskak [Etxebizitza kooperatibo proiektu bat Donostian](#) aurkezpen txostenean honela definitzen du proiektua:

“Bertan bizi diren pertsonen, gune komunak eta zerbitzuak partekatzeaz gain, elkarlanerako eta erabakiak hartzeko antolakuntza sistema horizontalak izan ohi dituzte, eta espazio komun eta pribatuen arteko banaketa lausotzen da. Gaur egungo bizi ereduak sortutako norbanakoen isolamendu, bazterketa egoera eta zaintzen krisiari irtenbideak ematea bilatzen du. Gainera, baliabideen erabilera konpartitua sustatuz errekursoak modu arduratsu eta eraginkorrean kudeatzen dira”.

Eredu kolaboratibo hauen adibide batzuk dira Bartzelonan aurki daitekeen [La Borda](#) edota inguru gertukoagoan aurki daitezkeen [Ametxe Koop](#), [Abaraska](#) edota [Gasteizko BiziKoopon](#).

Eredu hau interesgarria da elkarbizitzarako adibide desberdina planteatzen duelako. Aldi berean, cohousing eredu bera modu desberdinetakoa izan daiteke. Hau da, proiektuaren subjektuei erreparatuz, alde batetik, administrazio publikoak sustatu edota elkarbizitzarako eraikina administrazio publikoaren jabetzakoak direnak aurki daitezke: Oreretako proiektua adibidez. Beste batzuk aldiz, herritarren ekimenez sortutako zenbait kolektibo eta proiektu dira; hala nola Abaraska etxebizitza kooperatibo proiektua, Ametsak Sortzen cohousing erkidegoa, etab. Aldi berean, elkarbizitza ereduaren ere, modu komunitarioan bizi direnen eredu desberdinak aurki daitezke, hala nola, belaunaldi arteko eredu komunitarioaren ereduak.

Udal Etxebizitza sozialak

Udalenesku dauden neurrien artean, alokairu programenak daude. Administrazioak gazten emantzipazioa errazteko duen ardurari erantzuna emanez, gazteen egoeretara egokitzen diren neurri desberdinak garatzen ditu.

Bilboko Udaleko Bilbo Etxebizitzaren Gazte Solidarioentzako Udal Etxebizitzaren Programa da adibidea, UPV-EHU eta Deustuko Unibertsitatearen lankidetzarekin burutzen da eta hartzaileak graduondoko ikasleak dira.

“Programak alokairu partekatuko udal-etxebizitzak eskaintzen ditu prezio sinboliko batean, hilean 55 euro pertsonako (argiaren eta uraren gastuak ez dira sartzen). Trukean, ikasleek Otxarkoaga eta Bilbo Zaharreko komunitate-proiektuetan hartzen dute parte eta kolektibo ahulenei laguntzen diete. Izan ere, auzo horietan dira programako hogeit hamar etxebizitzak”

(Bilbao Gazte webgunea³).

Programa aztertzeko arrazoia, kasu honetan, **etxebizitza eskuratzeko zailtasunen aurrean** alokairua ordaintzeko egokitasuna da. Alde batetik, alokairu sozialtzat uler daitekeen hau alokairuaren prezioa gazteen egoerara hobeto egokitzen da. Izan ere, arestian aipatutako alokairura bideratu beharko litzatekeen ehunekotik gertuago kokatzen da. Bestalde, diruz ordaintzearekin bat komunitate-proiektuetan parte hartzearen truke planteatzen den aukerak bide berriak zabaltzen ditu.

³ Web Bilbao Gazte: shorturl.at/cCGZ6 2019-12-05ean kontsultatua





Belaunaldi artekoa

2018an SIISek argitaratutako [Experiencias de alojamiento intergeneracional](#) (2018) txostenean azaltzen den moduan belaunaldi arteko eredua Europan sortu zen arazo nagusi biren erantzun gisa: alde batetik, gazteek etxebizitza eskuratzeko duten zailtasuna; eta, bestalde, pertsona nagusiek bizi duten bakardade eta prekaritatea.

Duela bi hamarkada baino gehiago 50-60 urteko pertsonen artean sortu zen eredu honek ostatu-aukera berriak aztertu nahi zituen. Gogoeta hori, gainera, laguntza-erakunde tradizionalak, hala nola familia, bizilagunak edo eliza, krisian zeuden testuinguruan egin zen, eta gizarte-loturak sendotzera bideratutako irtenbide berriak bilatzea premiazkoa izan zen. Honekin bat, 50-60 urteko pertsonen kolektiboaren aipatutako arazoari aurre egiteaz gain, gazteen kolektiboaren emantzipatzeko arazoari erantzuten dion eredua bihurtu da.

Gainera, modu desberdinetan planteatuta eta gara daitekeen eredu bat denez, EGK-k eredu desberdinak lantzeko abiapuntu gisa aztertzea erabaki du. Horregatik, hurrengo atalean belaunaldi arteko etxebizitza eredua garatuko da.



3.1 Belaunaldi arteko ereduak

Bestelako ereduak aipatzen ditugunean, asko bildu daitekeenez, abiapuntu gisa EGK-k belaunaldi arteko ereduak jarri du arreta. Horretarako, eredu honen praktika adibide desberdinen bidez aztertu izan du burututako bi Hiruburuetan. Berauek gazteriari zein nolako aukerak, onurak eta hobetzekoak dakartzaten aztertzea izan da erronka, administrazioetik bidera daitezkeen neurri berritzaile gisa planteatzeko asmoz.

Baina **Hiruburu** bien inguruko ondorioak aurkezten sartu aurretik, belaunaldi arteko ereduaren nondik norakoak ezagutu behar dira eta hori izango da hurrengo atalean egingo dena.

3.1.1 Mota desberdinak

Belaunaldi arteko etxebizitzaren ereduak nazioarteko mailan lau motatan sailkatzen da⁴. EGK-k EAEn garatu izan diren hauetako bi ereduak jarri du fokua:

norberaren etxean belaunaldi arteko alojamendu programa eta belaunaldi arteko cohousing, alojamendu autogestionatua edo etxebizitza kolaboratiboa.

3.1.1.1 Norberaren etxean belaunaldi arteko alojamendu programa

Azaldu bezala, belaunaldi arteko ereduaren funtsa jendartearen bi beharrei erantzutea da: emantzipatzeko zailtasunak dituzten gazteen beharrei eta behar puntualak zein laguntza-premia arinak dituzten adinekoei erantzutea, beren etxebizitzetan bizitzen jarraitzea bermatzeko.

Programa hauek, gazte ikasleak -unibertsitate ikasleak batez ere- ikasturtean zehar adinekoen etxean bizitzeko oinarritzen dira; hartu emana, konpainia eta elkarrekiko laguntza sustatuz. Horiek formula hauen bidez gauzatu daitezke:

- Eredu solidario programan, gazteak doan hartzen du ostatu, nagusiarekin jatorduetan izan eta etxean ere egitekoen ardura eskaintzearen truke.
- Elkarbizitza programan aldiz, konpainiari eta laguntzari dagokionez, gazteak etxeari egiten dion ekarpena txikiagoa da. Trukean gazteek alokairua ordaindu behar dute, merkatuan aurki daitekeena baino baxuagoa.

⁴ Gehiago ezagutzeko irakurri SIISeko Experiencias de alojamiento intergeneracional, Revisión de literatura y selección de Buenas Prácticas (2019) txostena

Belaunaldi arteko ereduaren funtsa jendartearen bi beharrei erantzutea da: emantzipatzeko zailtasunak dituzten gazteei eta behar puntualak zein laguntza-premia arinak dituzten adinekoei

Eredu honek Frantziako estatuan izan du garapen berezia, bai solidarioak eta baita, elkarbizitza programak. COSI (Cohabitation Solidaire Intergénérationnelle) sarea da Frantziako belaunaldi arteko eredu honen erreferentzia nagusia. Frantziako Gobernuak babestutako berrikuntza sozialen zigilua den La France s'engage jaso du sare honek. Hemen aldiz, EAEko hiriburuetan Udaletxeek unibertsitateekin (UPV-EHU eta Mondragon Unibertsitatearekin) dituzten programak lirateke adibideak.

3.1.1.2 Belaunaldi arteko cohousinga, alojamendu autogestionatua edo etxebizitza kolaboratiboa

Belaunaldi arteko eredu hau bi kolektiboei erantzuna pertsona adindunaren etxebizitzan eman beharrean, modu kolektiboan egitean oinarritzen da. Irati

Mogollón eta Ana Fernándezek [Arquitecturas del cuidado](#) (2016) lanean azaltzen duten moduan, honako hau litzateke jarraitutako oinarritzko tipologia:

“Auzoetan elkartutako etxetxo independenteak dira, berauek patioak eta oinezkoentzako etorbideak dituzten auzoetan bilduta, berdegune askorekin. Auzokideek lorategiko erremintak elkar banatzeaz gain, garbiketarako tokia edota ekintza desberdinetarako (antzerki, jostura, bilerak...) espazio komunak ere elkar banatzen dituzte”
(Irati Mogollón eta Ana Fernández, 2016).

Finean, azaltzen den moduan, belaunaldi arteko elkarbizitza kolektiboaren aldeko apustua da:

“Apartamentu pribatu osoak, egoiliarrek partekatutako espazio eta/edo zerbitzu komunak dituztenak, helburuak lortzeko barne-lankidetzaz

sustatzen duten barne-antolamenduko sistema horizontaletan oinarrituta daudenak. Horrek esan nahi du pertsonalitate juridikoa edo formala dagoela kolektiboarentzat, kudeaketa-modu espezifikoak eta auzo-subiranotasuna dutenak erabakiak hartzerakoan”

(Irati Mogollón eta Ana Fernández, 2016).

Belaunaldi arteko ikuspegia duen etxebizitza kolaboratiboen kasuari dagokionez, erreferente garrantzitsuenetarikoa da Danimarka. Inguruan, aurretik esan bezala, belaunaldi arteko norberaren alojamenduaren apustua egin izan da gehien bat EAEko hiriburuetak eta unibertsitateen arteko programarekin. Hala ere, eta geroago sakonduko den moduan, badira belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioko proiektuak inguruan. Horren adibide eredugarria da aztertua izango den Usurbileko Udalak aurrera eramandako [Txirikorda proiektua](#)⁵.

⁵ Informazio gehiagorako, <http://www.usurbil.eus/eu/txirikorda> 2019-12-05ean kontsultatuta

4. Metodologia

2019an burututako bi jardunaldiak Hiruburu eztabaida-dinamikaren bidez gauzatu dira. Hiruburu hauek gazteak eta etxebizitzaren inguruko ardatz nagusi bi aztertzeko baliatu dira. Alde batetik, etxebizitza eskuratzeko egoera zailaren aurrean tokiko administrazioak zein nolako aukerak eskaintzen dituen. Bestalde, elkarbizitzarako eredu desberdina den belaunaldi arteko eredu.



Donostiako Milaka Elkarbizitza Hiruburu.

Zertan datza Hiruburu eztabaida-dinamikak?

Eztabaida-dinamika honetan hiru eragile mota elkartzen dira: gazteak, politikariak eta teknikariak.

Hiru profil hauek gazteen interesekoak diren edo gazteen egoeraz hitz egiten duten gai konkretuez eztabaidatzeko biltzen dira, kasu honetan etxebizitza eta gazteriaz. Protagonista bakoitzak ezagutzen duen errealitatearen ikuspegitik hitz egiten du. Era honetara, guztien artean egoeraren hobekuntzarako proposamenak egitea lortu nahi da.

Eztabaida-dinamika eredu honetan EGKren zubi-lanaren ideia praktikara eramaten da, administrazioa eta gazteak harreman eta elkarbizitza zuzenean jartzen baititu. Hau horrela, gazteak eta etxebizitzaren gaineko eztabaida abiapuntu izanik, proposamenak eraikitzea da Hiruburuaren helburua.

Finean, EGK-k aurreko atalean azaldutako egoerak kontrastatu eta administrazioentzako proposamenak aurkezteko helburuarekin bi jardunaldi prestatu ditu. Lehenengoa **Eta gazteen emantzipazioa? Hiruburu** izan zen Gasteizen eta bigarrena **Milaka Elkarbizitza Hiruburu** Donostian.

Hiruburu biek antzerako egitura eta edukia izan zuten. Bi zatitan banatu ziren jardunaldiak: lehenengo zatian, gazteria eta etxebizitzaren egoera ezagutzeko

irudi orokor bat mahai gaineratu zen eta belaunaldi arteko ereduaren nondik norakoak azaldu ziren; bigarren zatian aldiz, profilen aniztasuna eta oreka mantenduz, talde txikietan banatu ziren hiru ardatz hauek lantzeko:

A) Udaletxeak gazteen emantzipaziorako dituen neurriak **aztertu eta ekarpenak egin**

B) Eredu desberdinak landuz: belaunaldi arteko eredu. Mota desberdinak ezagutu eta ekarpenak egin

D) Hiribururako proposamena eraiki

Donostiako **Milaka Elkarbizitza** jardunaldia osatzeko Agurtzane Solabarrietak –Usurbilgo alkatea– eta Ainhoa Retegik –Hiritik At-eko kidea– Usurbilgo Udalak diseinatutako Txirikorda proiektua azaldu zuten, belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioan oinarritzen dena.

5. Hiruburuetako edukia

Honako hauek izan ziren Hiruburu ekitaldien bidez kontrastatu eta landu ziren ardatz nagusiak:

5.1 Gasteizko eta Donostiako Udalek emantzipatzeko dituzten aukerak aztertzen

Abiapuntu gisa gaur egun udaletxeek gazteen emantzipazioa errazteko dituzten baliabide eta neurriak aztertzea izan da erronka. Horretarako, talde txikietan banaturik Gasteizko eta Donostiako udalek dituzten neurrien gaineko informazioa aurki zitekeen eta hauen inguruko ekarpenak jasotzeko ariketa bat burutu zen. Ekarpene hauek hobeto ulertzeko, jarraian, hiriburu bakoitzean aztertutako neurrien laburpena dago. MIJ etxebizitzari buruzko informazio guinea eta aholkularitza zerbitzua da.



Gasteizko Eta Gazteen emantzipazioa? Hiruburua

GASTEIZ

- Gazteen Argibideetarako bulegoa - **OMI** etxebizitzari buruzko informazio gunea eta **aholkularitza zerbitzua da**.
- **Zuzkidura Etxebizitzak:** Zabalgunea 21k, Gasteizko Udal Hirigintza Elkartea, alokairuko etxebizitza sustatzeko gazteentzako programa baten garapena iragarri zuen 2019an. Honako hauek dira ezaugarriak:
 - 35 urte baino gutxiago dituzten eta higiezin merkatuan etxebizitza duin baterako eskubidea gauzatu ezin dutenentzako egongo da bideratuta.
 - **Etxebiden alokairuko etxebizitza eskatzaile gisa izena emanda eta Gasteizen gutxienez hiru urtez errolatuta egon beharko dute.**
 - Errentariak ordaindu beharreko hileko errenta 150 eurokoa izango da, gutxienez, eta bizikidetzaren unitatearen urteko diru-sarreraren %25a, gehienez.
 - Hasteko, 10 etxebizitza eskainiko ditu eta kontratuaren iraupena 7 urtekoa izango da ([Gasteizko Udaleko webgunea](#)).

Programaren inguruan jasotako ekarpenak

Aholkularitza zerbitzua: Udalaren baliabide eta aukerak guztiak ez dira ezagunak gazteen artean. Udalaren aukera hauek gazteen artean zabaltzeko beharra nabaria da.

Zuzkidura etxebizitzak: Udaletxearen jabetzako etxebizitza batzuk alokairuan jartzea positiboki baloratzen da. Merkatu pribatuan aurki daitezkeen prezio altuak, gazteen diru-sarreraren araberakoa izatea ezinbestekoa da.

➤ **Kopurua:** Eskaria eta eskaintza ez datoz bat. Etxebizitza gehiago behar dira eskariari aurre egiteko.

DONOSTIA

- **Zuzkidura Etxebizitzak:** Alojamentu iragankorrak dira, hau da, bost urteko eperako alokatzen dira, berritzeko aukerarik gabe.
 - Apartamentuek egongela-sukaldea, komuna eta logela bat dute, eta gehienez ere bi pertsona heldu bizi daitezke bertan, baina seme-alaba adingabeak ere bertan bizi daitezke.
 - Administrazioak, jabea denez gero, alokairua ezarriko du (231€/hilean).
 - Etxebizitza horiek lortzeko betekizun batzuk bete behar dira eta zozketetarako izena eman behar da ([Donostiako Udaleko webgunea](#)).

Programaren inguruan jasotako ekarpenak

Aholkularitza zerbitzua: Gazteen emantzipaziorako aholkularitza zerbitzuaren beharra dago.

Zuzkidura etxebizitzak:

➤ **Kopurua:** Eskaria eta eskaintza ez datoz bat. Itxaron zerrendak luzeegiak dira, etxebizitza gehiago behar dira.

➤ **Baldintzak:**


- Zurrunkak dira, malguagoak izan beharko lukete.
- Alokairuaren **errenta** diru sarreraren araberakoa izan beharko litzateke.
- Etxebizitzaren esleipenerako, zozketa beharrean, **baremazioak** hobesten dira.
- Bikotea izan gabe etxea **elkarbanatu nahi dutenentzat** aukerak eskaini beharko litzateke. Adibidez, binaka izen emateko aukera.

➤ **Aukera gehiago:** Donostian errolatuta egon gabe, bestelako lotura bat dutenentzako aukerak behar dira (ikasketak, lana Donostian).

Alokairurako dirulaguntzak beharrezkoak dira.

Herri eta hiri bakoitzak bere errealitatearen ezaugarri bereizgarriak ditu eta etxebizitza gaian ere nabaria da hori: hiri batzuek turistifikazio maila altuagoa dute, landa eremuko herriek, aldiz, baserri eraikinen abandonua... Halaber, bi hiriburuen egoera aztertzerakoan zenbait puntu bietan identifikatu ziren. Puntu hauek egungo etxebizitza egoera orokorrari erantzuten dioten puntuak dira, hots, EAE osoan aplikagarriak izan daitezke:

- > **Garrantzitsua ikusten da gazteentzako etxebizitzari buruzko aholkularitza zerbitzua izatea eta berau gazteen artean ezagutaraztea.**
- > **Gazteentzako alokairu etxebizitza kopurua handitzeko behar nabaria dago. Eskaria handia da, eskaintza txikia.**
- > **Alokairuaren errenta diru-sarreraren araberakoa izan beharko litzatekeela uste da.**



5.2 Belaunaldi arteko etxebizitza eredua aztertzen

Belaunaldi arteko ereduan jarri da fokua “3. Eredu desberdinak ezagutzen” atalean. **Hiruburu**etan ere horrela izan da eta bereziki, 3.1.1 atalean desberdin diren belaunaldi arteko ereduaren bi motak izan ziren jardunaldietan aurkeztu ziren ereduak; alde batetik, alojamendu berean pertsona adinduak gazteari logela alokatzeko kasuan, UPV/EHU eta administrazioen arteko programa eta bestalde, belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioaren kasuan, Txirikorda proiektua. Hurrengo taulan jasotzen dira neurri hauen inguruan Gasteizen eta Donostian jasotako ekarpenak.

Lauki hau interpretatzerakoan kontuan izan behar da hiriburu bakoitzaren errealitatea. Hau da, Gasteizen UPV/EHU eta Arabako Foru Aldundiaren alojamendu berean pertsona adinduak gazteari logela alokatzearen programak indar handiagoa du. Aldiz, Donostia inguruan etxebizitza komunitarioaren ereduaren adibide gehiago aurki daitezke.

GASTEIZ

Alojamendu berean pertsona adinduak gazteari logela alokatzea (UPV/EHUren programa adibidez):

- Belaunaldi arteko etxebizitza programak ikasleei bakarrik bideratu beharrean, aukera hau gazte guztiei luzatzea; ikasleak izan, zein ez.

Belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioa (Txirikorda proiektua adibidez):

Etxebizitza hauen baldintzetan ere jarri behar da fokua. Hau da, saihestu beharrekoa da etxebizitza komunitarioaren aitzakian ‘Erlauntz’⁶ etxebizitzak eratzea.

DONOSTIA

Alojamendu berean pertsona adinduak gazteari logela alokatzea (UPV/EHUren programa adibidez):

Zenbait arriskuri erantzuna emateko aurreikuspena:

- Adin nagusien intimitatea galtzeko arriskua.

Aukera hau gazte guztiei luzatzea; ikasleak izan, zein ez.

Belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioa (Txirikorda proiektua adibidez):

Instituzioen esku hartzea oso beharrezkoa da.

Zenbait arriskuri erantzuna emateko aurreikuspena:

- Adin nagusien intimitatea galtzeko arriskua.
- Arriskua: kolektibo desberdinen elkarbizitza errealak ez gauzatzea.

⁶ Hiru metro koadroko logeladun pisuak dira. Haibu 4.0 enpresak Espainiako Estatuko zenbait hiritan daude; Sevillan, Madrilan edo Bartzelonan. Azken honetan eraikinak eztabaida sortu eta Bartzelonako Udalak bizitzeko gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztela argudiatuta debekatu ditu. Informazio gehiago: <https://bit.ly/2OIZXcB> edota <https://bit.ly/2Y9CIVT>



Amaitzeko, berezitasunak berezitasun, aurreko atalean gertatu bezala badira zenbait puntu bi jardunaldietan mahai gaineratu zirenak. Arrazoa etxebizitza arazoari modu orokorrean eragiten dioten puntuak direla da. Horregatik, arreta bereziarekin erreparatu beharrekoak dira hurrengo hauek:

Gazteen artean etxebizitza eredu desberdinak ezagutzeko beharra eta nahia dago.

- Eredu tradizionalaz gain, elkarbizitzarako beste modu batzuk ezagutzeko nahia dute gazteek.
- Bereziki, gailentzen den eredu indibidualistatik aldenduz, eredu kolaboratiboan lan egiten hasi behar da.
- Bide horretan, inguruan martxan dauden bestelako ereduak ezagutzea litzateke eman beharreko lehenengo urratsa.
- Eredu hauek ezagutzeko eta lantzeko espazioak sortzeko beharra dago.
- Bizitzaren fase desberdinei etxebizitza egokitzeko garrantzia. Arkitektura egitura zurrunetik aldenduta, etxebizitza eraikinak bizitzako fase desberdinei erantzungo dien egitura malguagoak aztertzea garrantzitsua da.

Belaunaldi arteko etxebizitza eredua

- Aurreiritziak gainditzeko aukera dakar.
- Eredu berri honen filosofiari erantzuteko formakuntza emateko beharra dago.
- Belaunaldi arteko elkarbizitza aberasgarria da bi kolektiboentzat.
- Komunitate izaera izatea positiboki balioesten da. Halere, komunitate kultura sustatzeko indar berezia egin behar da.
- Behar kolektibo eta indibidualei erantzuten dion planteamendu interesgarria da.

6. Ondorio batzuk: proposamenetatik eraikitzen

Jardunaldietan Gasteiz eta Donostiarako proposamenen gainean aritu ziren. Hauek dira hiriburu bakoitzarentzat identifikatutako erronkak:

GASTEIZ

- > Udalaren komunikazio hedapenak indartu: besteak beste, sare sozialak ere erabiliz.
- > Udalak eraikinak erostea zoru publikoa handitzeko.
- > Gasteizko ikasle kopuru handiari erantzungo dion programa bat garatzea.

DONOSTIA

- > Gazteentzako proiektuak sortzeko gazteen hitz zuzena eta hauen elkarlana bermatzeko espazioa sortzea.
- > Auzoz-auzoko beharren identifikazioa egitea, erantzunak emateko.

Amaitzeko, aurreko ataletan egin bezala, bai Gasteizen, bai Donostian proposatu ziren **erronka komunei** erreparatuko zaie. Izan ere, hauek izan daitezke etxebizitza politiketan lantzeko lan lerroetako batzuk:

- ✓ **Hutsik** dauden etxeei erabilera emateko programak garatzea.
 - ✓ Udaletxeak bere jabetzan **hutsik** dituen eraikinak herritarrentzako erabilgarri jartzea.
 - ✓ Etxebizitza hutsak merkaturatzeko neurriak ezartzea.
- ✓ **Alokairu prezioa mugatzea.** Merkatu pribatuko alokairu prezio altuak kontrolatzeko administrazio publikoaren esku hartzearen bidez.
- ✓ Gazteentzako zuzkidura etxebizitzaren **eskaintza zabaltzeko beharrari erantzutea.**
- ✓ **Aholkularitza zerbitzua izatea.** Bi jardunaldietan emantzipazio-prozesuan aholkularitza zerbitzuaren garrantzia azaldu zen, zehatzago, Gasteizen honen gizarteratzea eta Donostian sortzea.
- ✓ **Eredu desberdinak** gazteen artean ezagutaraztea. Adibide moduan eredu kolaboratiboak eta belaunaldi arteko ereduak azaldu ziren. Hau, esaterako, prestatutako jardunaldiaren bidez egin daiteke.
- ✓ Martxan dauden bestelako aukerak luzatzen dituzten **praktikei ikusgarritasuna eta balioa ematea**, hauen arteko **saretzea ahalbidetu** eta **praktika berri gehiago mahai gainean** jartzea.

7. Itxiera

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) gazteen eskubideak defendatzea eta gazteen ahotsa entzuna izatea bilatzen du. Bide horretan lanean ari da EGK-ko **Emantzipa...zer?** lantaldea eta norabide berean antolatu dira **Eta Gazteen emantzipazioa?** Eta **Milaka Elkarbizitza Hiruburuak**.

Esku artean duzun txosten honen helburua hirukoitza da: batetik, orain arte egindako lana jasotzen du; bestetik, gazteentzat zein administrazioarentzat baliagarriak diren datu eta ereduak ezagutaraztea; eta, azkenik, gazteek landutako proposamen eta erronkak administrazioari helaraztea neurriak sortzerakoan aintzat har ditzaten.

8. Aipamen Bibliografikoak

- o Abaraska (2018) [Etxebizitza kooperatibo proiektu bat Donostian.](#)
- o Emakunde (2018) [Soldata arrakala euskal autonomia erkidegoan.](#)
- o Emantzipa...zer? lantaldea-EGK (2019) [Gazteak eta etxebizitza ilustrazioak](#)
- o Etxebizitza Behatokia (2019) [Euskadiko turismo-erabilerako etxebizitzaren eta bizitegi-alokairuari buruzko azterketa konparatiboa.](#)
- o Gazteen Euskal Behatokia (2018) [Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2017](#)
- o Gazteen Euskal Behatokia (2019) [Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2018](#)
- o Gazteen Euskal Behatokia (2018) [Gazteak eta enplegua Euskadin](#)
- o Gazteen Euskal Behatokia (2018) [Gazteen emantzipazioa Euskadin 2017](#)
- o Gazteen Euskal Behatokiak (2019) [Euskadiko gazteen egoeraren diagnostikoa, 2019](#)
- o Mogollón García, Irati eta Fernández Cubero, Ana (2016) [Arquitecturas del cuidado. Viviendas colaborativas para personas mayores. Un acercamiento al contexto vasco y las realidades europeas.](#)
- o Nazio Batuen Asanblada Orokorra (1976) [Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturei Buruzko Nazioarteko Paktua](#)
- o Nazio Batuen Batzar Nagusia (1948) [Gizarte Zerbitzuen Nazioarteko Hitzarmena](#)
- o SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa (2019) [Experiencias de alojamiento intergeneracional, Revisión de literatura y selección de Buenas Prácticas](#)
- o 3/2015 Etxebizitza Legea. (2015) [3/2015 LEGEA, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena](#)

Web orrialdeak:

- o Abaraska Etxebizitza Kooperatiboa
- o Ametsak Sortzen Cohousing Erkidegoa
- o Bilbao Etxebizitza. [Gazte Solidarioentzako Udal Etxebizitzaren Programa](#)
- o Gazteizko Udaleko webgunea. [Gazteentzako alokairuko etxebizitzaren programa bat bultzatu du 21 Zabalgunek](#)
- o Oreretako Udala. [Oreretako gazteentzako etxebizitza komunitarioaren proiektua](#)
- o Usurbileko Udala. [Txirikorda proiektua](#)



Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua

Consejo de
la Juventud
de Euskadi

